

## Covid19 atala webgunean

Gaurtik aurrera, COVID19-arekin loturiko protokolo, jarraibide eta bestelako informazioa [www.zurriolaikastola.eus](http://www.zurriolaikastola.eus) webgunean sortutako erlantz berrien ikusgai izango duzue. Oraingoan, aste honetako hiru txosten berriak aurkituko dituzue: **1. Kontingentzia Plan Laburtua**, **2. Nola jokatu COVID19 kasuen aurrean** eta **3. Konfinatutako ikasleari arreta 1. agertokian**. Datozen egunetan, ikasturte hasieratik zabaldu ditugun txostenak igotzen joango gara, eta beste informazio berriren bat igotzen dugunetan, Atariaren bitartez emango dizuegu horren berri.



## Guraso Ordezkariekin harremana bultzatzea

Asteartean izan genuen Guraso Ordezkariekin 1. bilera eta, bertan, informazio-trukerako eta ekimenerako organoa izateko eman beharreko pausuak zehaztu ziren. Horietako bat guraso ordezkariek eta gelako gainerako gurasoen arteko harremana sustatzeko bideak indartzea zen eta, horretarako, zuen harremanetarako kontaktua partekatze baimena emanaz ondorengo [inprimakia](#) betetzea eskatzen dizuegu.



## Eskolaz kanpokoak: azken berriak

Bart arratsaldean, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) bileran, bihartik aurrera (azaroak 7) indarrean egongo diren neurri murriztaile gehiago ezartzea adostu zen. Neurri berriak biltzen dituen 38/2020 dekretua argitaratu berri da gaur. ([Info+](#))



## Adierazpen grafikoa: spraiak

Batxilergo Artistikoko adierazpen grafikoko ikasleek bi lan egin behar izaten dituzte espraiak erabiliaz. Ikasle bakoitzak arte lan bat sortzen du 50x50 cm-ko egur baten alde banatan.

Alde batean koloreak eta hauen indarra erabiltzen dute, lan abstraktu bat sortzeko. Bigarren aldean, aldiz, espraiari forma emango dion zerbait erabili behar dute; karrozero zinta, plantila, ...



## Sahara

Bizi dugun pandemiaren eraginez, aurten ezingo da ohiko laguntza humanitaria bidali Saharako errefuxiatu kanpamentuetara, eta antolatzaileek beste mota bateko laguntza-kanpaina jarri dute martxan. [Zirkularra](#). ([Info+](#)).



## Euskaraldia

Ikastolako Ariguneak aurkezten jarraituko dugu aste honetan ere, eta oraingoan, HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLE TALDEAREN eta JANGELAKO LANGILEEN txanda da!



## OHARRAK / AGENDA:

- **HH2tik GKAI2ra:** Etxeetako egoera teknologikoa. [Galdetegia](#).
- **HH5:** Basoeskola. Egun osorako irteera. HH5A-B azaroak 9. HH5C-D azaroak 10. [Zirkularra](#).
- **LH2:** Alde Zaharrera irteera. Egun osoa. Azaroak 18 edo 19 (eguraldiaren arabera). Zehazteke.
- **Eusko Jaurlaritzako bekak (HH2tik GKAI2ra):** [Zirkularra](#).
- **Zerbitzuetako langileen lan-poltsa (zaintza, garraioa, garbiketa edo jangela):** [Galdetegia](#).
- **Errigora:** [Zirkularra](#).

**IKASTOLAK HERRIARI**

AURKEZLEAK: MIKEL PAGADI ETA ZUHAITZ GURRUTAGA

**ANJE DUHALDE, PAULINE eta JULIETTE**

**XABI SOLANO MAIZA** eta KIMUA DANITZA KOLEKTIBOA

**NOGEN**

**DEMODE QUARTET**

**KORRONTZI** eta OINKARI DANITZA TALDEA

**AZAROAK 13**

**18:00etan**

**KURSAALEAN**

**EUSKARALDIA**

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

